

Euzkadiko Jaurlaritzaren sorkizuna

Alderdi, 287. zk., 1973-10.

Espainiak 1839an euskotarrei mundua bezain zaarrak ziren askatasuna eta berjabetasuna indarkeriz kendu zizkientetik, ez zuten ondasun oiek berriz bereganatzeko burrukatzerik utzi. Borbondarren erregetzak egin zituen makurkeriak zuzenduko zituela aginduaz iritxi zan Espainira errepublika 1931-an, baina garaipenak sor arazten duen itxumena zela-ta ez zuen emandako itza bete, eta Espainiako Batzar Nagusiak ez zion Euzkadiri zor zitzaion buru-jabetsa aitortu 1936go urriaren 1go arte, frankotarren matxinak gure erria estuasun aundian jarri zuen artearaino. Eta naiz eta ezagutu ziguten askatasuna guri zor zitzaigunaren zati txikia bat besterik ez bazen ere, eta onetaz gainera erri bateri bere askatasuna gerra garaian ezagutzeak erresponsabilidade aundi bat leporatzea zela jakinda ere, munduan legez zor zitzaigun toki bat aitortzeak asko poztu eta bete ginduen. Berriz aske izatearen ordaina odola zen, eta asko, eta saminatasuna zen, eta asko, baina, zer ajola zitzaigun, euskotarrek arnas artzeko bear duen osijenoa aina bear bait dute askatasuna.

Gure aurrekoen aintzinatea gure gaurkotasunean itsasi zen, eta Gernikan gora begira dagoen Arbola bedeinkatua erliki utsa izatetik gure hixtoriaren ikur bat izatera etorri zen.

Indarkeriaren baionetez inguratua zegoen askatasunaren zuaiz maitearen babesean; Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa arerioaren eskuetan zeudela, eta bere guda-gizonak Bizkaia bertako mugetatik keinatzen ginuztela, 1936go urriaren 7an, Gernikan, antzinako erri-buruan, bildu ziren erriko ordezkariak aukeratu ninduten euskotarren Lendakari. Europako erri zaarrenak ordu ezkeroko ogei eta amabi urteko buruzagi bat aukeratuaz erakutsi zuen erriak ez direla zaartzen fedeak eta itxaropenak gazte eta erne iraun azten dieten bitartean.

Antzina-antzinako denboretan galtzen den oituerari jarraituaz, erroak lurpean eta abarrak zerura begira dituela gure errairen gogo eta berjabetasunaren ikur bezala bizi den Gernikako zuaizpean zin egin nuen artutako agindua beteko nuela. Zuaizpe onetantxe zin egin zuten 1839 arte Bizkaiko Jaunak, Euskalerriko lege bereziak errespetatu eta gordeko zituela on artuak izango aitortuaz. Jainkoak aukeratu nai izan ninduen eun urtean etena egon zen aintzinatea bir-ezartzeko, eta nere erri oni leialtasuna zor niola zin egiteko oorea izan nuen.

Euskal lurraldeak ere duen poz-irriparra zeruaren goibeltasunak gal arazten dion oietako gure aberriko egun ilun baten arratsalde bat izan zen. Alemandarrek gertuta zituzten egazkinen asmo gaizkileak egin zezaketen kalteak ageri ziren zeruan. Zinezpenaren eta Euzkadiko Jaurlaritzaren berriaren aurkeztearen egierak ixilpean gorde ziren; Francok au jakin izan bazuen, Gernikaren erraustea aurreratuko zuen. Baina ala ere berria ixil-itzez, aoz-ao, zabaldu zen, eta euskotarrak zituen saminei atsedentxo bat

emanaz toki guzietatik eta ibilpide guziak zirela merio, gure aintzinatearen jauretxea den errira etorri zen.

Arratsalde artan Gernikan nabaitzen zen ixilunea zen jende aien biotz-ikara ondoen erakusten zuena. Negarrez zegoztenak ere, eta asko ziren negarrez, ixilik egiten zuten. Zuaizpean jarri nintzan eta denek entzuteko moduan esan nituen zinezpenerako aintzinez erabiltzen ziren itzak:

Jaunkoikoaren aurrean apalik,
Eusko lur gainean zutunik,
Asabaen gomutaz,
Gernikako zuaiz pean,
Nere agindua ondo betetzia
Zin dagit.

Denok ba genekien gure hixtoriak markatua zeukan toki artan euskotarrok bildu baginen, Aberriaren eta Gizartearen alde egiteko eskeintzaro asiera elkarrekin bizitzeko izan zela.

(De Guernica a Nueva York pasando por Berlín liburutik euskeratua).